

FUNTSEZKO ELKARTEAK: Hornitzaileak eta bazkideak

Guk zerbitzuak eskaintzen ditugunez, ez dugu hornitzaileak, baizik eta laguntzaileak. Enpresek eta Bilboko Udalak laguntzak eskaintzen dituzte, hala nola materiala, dirua edo irakasleak, gure proiektua aurrera eramateko. Izan ere, laguntza eskaintzen duten, etorkizunean langileak izango dituztela bermatzeko, eta horrek etorkizuneko aukerak irekiko dizkie. Era berean, udalarentzat ere erakargarria da gizartearen ongizateari bideratutako helburuak (Agenda 2030) lortzeko baliabideak eskuragarri izatea. Laguntzaile (enpresa eta Bilboko udala) hauek garrantzia azpimarratzen duten zergatiak hurrengoak dira:

- 1. Negozio-eredua optimizatzea eta hedatzea ahalbidetzen dute:** Laguntzaileek aukera ematen digute negozio-eredua optimizatzeko eta hedatzeko. Enpresek laguntza ekonomikoa eta materiala eskaintzen dute, eta Bilboko Udalak langabeak identifikatzeko aukera ematen du, zein, etorkizunean, gure zerbitzuetan lanpostuak betetzeko baliagarri izango diren. Horrela, azpikontratazioak errazten dira eta azpiegiturak konpartitzeko aukera zabaltzen da, kostuak murriztuz eta negozioaren hedapenari lagunduz.
- 2. Arriskuak murriztea:** Enpresek porrot egin dezaketen arren, udalak egonkortasun ekonomikoa bermatzen du, diru-laguntzen eta baliabideen eskaintzaren bidez. Horrela, enpresaren funtzionamendua eta iraunkortasuna aseguru egiten dira, eta gizartearen interesekin bat datozen helburuak lortzen dira.
- 3. Baliabideak eskuratzea:** Laguntzaileek baliabide ugari eskaintzen dituzte, hala nola dohaintzak eta prezio merkean eskura daitezkeen ondasunak. Adibidez, elektrikari batek materiala dohainik eskaintzen du, eta horrek aukera ematen digu formakuntza jaso duten langileak kontratatatzeko etorkizunean. Horrela, baliabide gehiago lortzen ditugu, gure zerbitzua hobetzeko eta gure helburuak betetzeko.

ZER SOZIETATE MOTA DA?

Gure enpresa **sozietate mugatua eta irabazi asmorik gabeko entitatea** da. Bazkideen helburua ez da mozkinak ateratzea, baizik eta gizarte-arazo bat konpontzea eta benetako aldaketa bat lortzea. Horregatik, bazkideek erabaki dute enpresak lortzen dituen etekin guztiak berriz ere proiektuan inbertitzea, gizartearen ongizatea eta komunitatearen beharrei erantzuteko.

